



1.- EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO BALDINTZAK

Dirulaguntza hauen eskatzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte onuradun izateko:

1. Ibarra erroldatuta egotea, gutxienez, ikasturtea hasi baino sei hilabete lehenagotik.
2. Hamasei urte (16 urte) beteak izatea.
3. Egoitza soziala Ibarra duen enpresa edo entitate batean lanean aritzea gutxienez ikasturtea hasi baino sei hilabete lehenagotik.
4. 2023ko uztailetik 2024ko ekainaren 30era bitartean HABEk homologatutako euskaltegiaren edo barnetegiren batean euskara-ikastaro batean matrikulatua egotea.
5. Matrikula ordaindu izana.
6. Ikastaroa bukatzea eta gutxieneko aprobetxamendua izatea. Ikastaroa jaso den Euskaltegiak edo barnetegiak egindako ziurtagiri bidez justifikatuko da. Ikastaroa Aitzol euskaltegian egin bada, euskaltegiak berak igorriko dio Udalari txostena ikasturtea amaitutakoan.
7. Gutxienez, %85eko asistentzia izatea.
8. Dirulaguntzak jasotzeko inolako debekuren batean sartuta ez egotea. Debeku horiek azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan zehaztutakoak izango dira.
9. Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea.

2.- AURKEZTU BEHAR DIREN AGIRIAK

1. Eskaera orria, behar bezala beteta.
2. Nortasun Agiri Nazionalaren kopia.
3. Euskaltegiak egindako asistentzia eta matrikula ordaindu izanaren ziurtagiria. Tolosako Aitzol euskaltegian ikasketak egin dituztenak agiri hau aurkeztetik salbuetsita daude.
4. Bestelako administrazioei eta erakunde publiko edo pribatuei egindako dirulaguntza eskaeren zein jadanik emandako dirulaguntzen gaineko aitorpena.
5. Eskatzaileak duen bankuko kontuaren titularitatea egiaztatuko duen agiria.